

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar duten zergadunen 2024ko errolda

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar duten guztiei jakinarazten zaie 2024ko ekitaldiko zerga horri dagokion zergadunen errolda honako toki hauetan egongo dela ikusgai, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera:

Udalaren kuotak: dagokion udaletxean.

Probintziako eta estatuko kuotak: Arabako Foru Aldundian.

Zergadunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote, errolda jendurrean jarri eta hogeit hamar egun balioduneko epean, zerga kudeatzen duen erakundeari edo, bestela, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari.

Halaber, iragartzen da jarduera ekonomikoen gaineko zerga epe hauetan bilduko dela:

I. Ordaintzeko epea.

a) Udalak 2024ko irailaren 1etik urriaren 31ra bitartean bilduko du jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

b) Premiamendu aldia: 2024ko azaroaren 1etik aurrera, premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiz eta dagokion errekarguarekin (Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikulua).

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

a) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

b) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuren batean helbideratuta ez daukatenean udal bulegoetan baino ezin izango dute egin borondatezko epean.

III. Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen alta edo aldaketak, zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbideen aldaketak, Aguraingo Udalaren bulegoetan izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2024ko ekainaren 14a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR